**OLATZ GARAMENDI LANDA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILEKO SAILBURUAK ETA EUSKO JAURLARITZAKO IDAZKARIAK**

**OLATZ GARAMENDI LANDA, CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA DEL GOBIERNO VASCO**

## EGIAZTATZEN DUT:

## CERTIFICO:

Eusko Jaurlaritzak, 2021eko martxoaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 16 de marzo de 2021 adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

**ERABAKIA, EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOAREN 2020-2025 PLANA ONARTZEN DUENA.** (2021/00217 ESP.) (A/20210044)

**ACUERDO POR EL QUE SE APRUEBA EL PLAN DE SEGURIDAD PÚBLICA DE EUSKADI 2020-2025.** (EXP. 2021/00217) (A/20210044)

2025eko Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra 2020-2024 legegintzaldi honetarako Plan Estrategikoen egutegiaren barruan jasota dago. Egutegi hori Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakiaren bidez onartu zen, eta I. eranskinean plan hori egiteko eta izapidetzeko prozedura arautzen da.

El Plan General de Seguridad Pública de Euskadi 2025 se encuentra incluido dentro del calendario de Planes Estratégicos para la presente legislatura 2020-2024, aprobado por el Acuerdo del Consejo de Gobierno de 15 de diciembre de 2020, que en su Anexo I regula el procedimiento para su elaboración y tramitación.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa den ekainaren 28ko 15/2012 Legeak 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, segurtasun publikoaren sistemaren printzipio komunen barruan hauek daude: arrisku eta mehatxuen prebentzioa, herritarrek dituzten beharrizanak ezagutzea eta zerbitzu publikoa haiei egokitzea, arazoak identifikatzea, erantzuna planifikatzea eta emaitzak ebaluatzea.

Dentro de los principios comunes del sistema de seguridad pública se encuentran, de conformidad con lo establecido en el artículo 3 de la Ley 15/2012, de 28 de junio, de Ordenación del Sistema de Seguridad Pública de Euskadi, los de prevención de los riesgos y amenazas, conocimiento de las necesidades ciudadanas y la adaptación del servicio público a las mismas, junto con la identificación de los problemas, planificación de la respuesta, y evaluación de los resultados.

Nahi izanez gero, J0D0Z-T2T84-7979 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: https://euskadi.eus/lokalizatzailea

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2T84-7979 en la sede electronica https://euskadi.eus/localizador

Lege horrek segurtasunaren helburuak, estrategiak eta jarduera-lerroak planifikatzeko beharra azpimarratzen du, eta, horregatik, lehen Tituluan, autonomia erkidegoko zein tokiko segurtasunaren plangintza arautzen duen III. Kapitulua horri buruzkoa da. Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra plangintza horren gailurra da. Plan horrek arriskuen, jardueren eta bitartekoen azterketa eta aurreikuspen orokorrak barne hartzen ditu ondoko arlo hauetan: herritarren segurtasuna, larrialdiak, bide-segurtasuna eta Euskadiko herritarren elkarbizitzari eta pertsonen eta ondasunen segurtasunari eragiten dieten beste batzuk.

Esta ley enfatiza la necesidad de planificar los objetivos, estrategias y líneas de actuación de la seguridad, dedicando, al efecto, el Capítulo III de su Título primero, regulador de la planificación de la seguridad a nivel tanto autonómico como local. Como cúspide de tal planificación, se sitúa el presente Plan General de Seguridad Pública de Euskadi, que integra el análisis y las previsiones generales de riesgos, actuaciones y medios, en materia de seguridad ciudadana, emergencias, seguridad vial y otras que afecten a la convivencia ciudadana y la seguridad de las personas y los bienes en Euskadi.

Planaren jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez, 7.2 atalak honako mekanismo hauek aurreikusten ditu:

En lo que respecta al seguimiento y evaluación del Plan, su apartado 7.2 prevé los siguientes mecanismos:

a) Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorraren jarraipena:

Segurtasun Sailburuordetzako Zuzendaritza Kontseiluak egingo du jarraipen hori, hiru hilean behin.

Sailburuordetzako zuzendaritzek egingo dute, zuzendari bakoitzak erabiltzen duen kudeaketa-sistematikari jarraituz.

a) Seguimiento del Plan General de Seguridad Pública de Euskadi:

Este seguimiento se llevará a cabo por el Consejo de Dirección de la Viceconsejería de Seguridad, con una frecuencia trimestral.

Se realizará desde las Direcciones de la Viceconsejería siguiendo la sistemática de gestión utilizada por cada uno de los/as directores/as.

b) Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorraren urteko ebaluazioa:

Egindako ekintzak, haien aurrerapen-maila eta aurreikusitako helburuen lorpena aztertzeko egingo da. Ebaluazio horiei esker, gerta daitezkeen desbideratzeak hauteman eta aurreikusi ahal izango dira, eta, ondorioz, ezarritako ekintzetan hobekuntzak identifikatu ahal izango dira.

b) Evaluación anual del Plan General de Seguridad Pública de Euskadi:

Se realizará con el fin de analizar las acciones realizadas, su grado de avance y el logro de los objetivos previstos. Estas evaluaciones permitirán detectar y prever las posibles desviaciones y, por consiguiente, identificar mejoras en las acciones implementadas.

Ebaluazio hori Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak koordinatuko du. Hori gauzatzeko kontuan hartuko dira bai 6. kapituluan jasotako inpaktu-adierazleak, ekintza-plana segurtasun errealaren eta hautemandako segurtasunaren ikuspegitik ebaluatzeko, bai Planaren III. eranskinean jasotakoak.

Hortaz, 6. kapituluan jasotakoaren arabera, inpaktu-adierazle hauek hartuko dira kontuan:

– Herritarren segurtasunaren pertzepzioaren (herritarren segurtasunaren pertzepzioa Euskadin) gaineko inpaktua.

– Herritarren balorazioaren gaineko inpaktua (Ertzaintzak eskainitako polizia-zerbitzuen balorazioa; udaltzaingoek eskainitako polizia-zerbitzuen balorazioa; 112n jasotako arretaren balorazioa; Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziak emandako informazioarekiko gogobetetze-maila; larrialdi-zerbitzuek trafiko-istripu baten aurrean ematen duten tratuaren eta zerbitzuaren balorazioa; Eusko Jaurlaritzaren webguneak/app-ak emandako trafikoaren egoerari buruzko informazioaren balorazioa).

– Benetako segurtasunaren gaineko inpaktua (kriminalitate-tasa 1.000 biztanleko; delitu estrategikoen kriminalitate-tasa 1.000 biztanleko; argitze-tasa orokorra– poliziak konpondutakoak–; argitze-tasa giza hilketetan; argitze-tasa sexu-askatasunaren aurkako delituetan; argitze-tasa etxebizitzan indarra erabiliz egindako lapurretetan; argitze-tasa indarrez eta larderiaz egindako lapurretetan; emakumeen aurkako biktimizazio-kopurua; emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen kopurua; aktibatu beharko liratekeen plan guztietatik aktibatutako larrialdi-planen %; 112 telefonoak herritarren eskura jarritako abisu-tresnen eta -bitartekoen (app, web, etab.) ezagutza/onarpen maila; emaitzei egokitutako larrialdiaren eremuan alerta goiztiarrak aurreikusteko

Esta evaluación se coordinará desde la Dirección de Coordinación de Seguridad. Para llevarla a cabo se tendrán en consideración tanto los indicadores de impacto, recogidos en el capítulo 6, en orden a la evaluación del plan de acción, en términos de seguridad real y percibida, así como aquellos otros recogidos en el Anexo III del Plan.

Así, respecto del capítulo 6, se tendrán en cuenta los siguientes indicadores de impacto:

– impacto en la percepción de la seguridad ciudadana (percepción de la seguridad ciudadana en Euskadi)

– impacto en la valoración ciudadana (valoración de los servicios policiales ofrecidos por la Ertzaintza; valoración de los servicios policiales ofrecidos por Policías Locales; valoración de la atención recibida en el 112; grado de satisfacción con la información que ofrece la agencia vasca de meteorología Euskalmet; valoración del trato y servicio que prestan los servicios de emergencia ante un accidente de tráfico; valoración de la información del estado del tráfico aportada por la web / app del Gobierno Vasco

– impacto en la seguridad real (tasa de criminalidad por cada 1.000 habitantes; tasa de criminalidad de delitos estratégicos por cada 1.000 habitantes; tasa de esclarecimiento -resolución policial-General; tasa de esclarecimiento en homicidios; tasa de esclarecimiento en delitos contra la libertad sexual; tasa de esclarecimiento en robo con fuerza en la vivienda; tasa de esclarecimiento en robo con fuerza e intimidación; número de victimizaciones contra las mujeres; número de víctimas de violencia contra las mujeres; % de planes de emergencia activados sobre el total de los planes que se deberían activar; grado de conocimiento/aceptación de las herramientas y medios de aviso (app, web, etc) puestas a disposición de la ciudadanía por el 112; % de capacidad de previsión de las alertas tempranas en el ámbito de emergencias adecuadas a los

gaitasunaren %; denbora errealean jasotako datu meteorologikoen %; meteorologia-arloan herritarren eskura jarritako abisu-tresnen eta -bitartekoen (app, web, etab.) ezagutza/onarpen maila; trafiko-istripuen ondorioz hildako pertsonen kopurua; trafiko-istripuen ondorioz larri zauritutako pertsonen kopurua; jokorako eta apustuetarako lokal eta puntuen kopuru guztia kontuan hartuta, egindako ikuskapenen %; egindako ikuskapen kopuruaren gainean, adingabeei buruzko akten ratioa (bai joko-lokaletan egoteagatik, bai jokatzeagatik).

resultados; % de datos meteorológicos recibidos en tiempo real; grado de conocimiento/aceptación de las herramientas y medios de aviso (app, web, etc) puestas a disposición de la ciudadanía en materia de meteorología; nº de víctimas mortales a causa de accidentes de tráfico; nº de personas heridas graves a causa de accidentes de tráfico; % de inspecciones realizadas respecto del número de Locales y puntos de juego y apuestas; ratio de actas sobre menores (tanto por permanencia en locales de juego como por jugar) sobre el número de inspecciones realizadas)

Era berean, planaren III. eranskinean jasotako adierazleak hartuko dira kontuan. Erabaki-proposamen honetan jasota daude jarduera-lerro nagusiak:

Asimismo, se tendrán en cuenta los indicadores contenidos en el anexo III del plan, del cual se reproducen en esta propuesta de acuerdo sus principales líneas de actuación:

L1 EUSKADIKO SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUAREN ESPARRU ESTRATEGIKOA ETA KONPETENTZIALA EZARTZEA

L1. ESTABLECER EL MARCO ESTRATÉGICO Y COMPETENCIAL DEL MODELO DE SEGURIDAD INTEGRAL DE EUSKADI

L2 SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA OSATZEN DUTEN ENTITATE GUZTIEN ARTEKO KOORDINAZIO ETA LANKIDETZA MEKANISMOAK FINKATZEA

L2. CONSOLIDAR LOS MECANISMOS DE COORDINACIÓN Y COOPERACIÓN ENTRE TODAS LAS ENTIDADES QUE CONFORMAN EL MODELO DE SEGURIDAD INTEGRAL

L3 EUSKADIKO SEGURTASUN-SISTEMAREN POSIZIOA INDARTZEA, BABES ZIBILEKO ETA POLIZIA LANKIDETZAKO NAZIOARTEKO ESPARRU ETA AGENTZIETAN

L3. REFORZAR LA POSICIÓN DEL SISTEMA VASCO DE SEGURIDAD EN LOS ÁMBITOS Y AGENCIAS INTERNACIONALES DE PROTECCIÓN CIVIL Y DE COOPERACIÓN POLICIAL

L4 PREBENTZIO PROGRAMA ESPEZIFIKOAK EZARTZEA, SEGURTASUN ARRISKUEN AURREAN KALTEBERAGOAK DIREN KOLEKTIBOEKIN JARDUTEKO

L4. ESTABLECER PROGRAMAS DE PREVENCIÓN ESPECÍFICOS PARA ACTUAR SOBRE DETERMINADOS COLECTIVOS SENSIBLES ANTE RIESGOS PARA SU SEGURIDAD

L5 EUSKADIN AZPIEGITURA KALTEBERA PROPIOAK BABESTEKO SISTEMA BAT SORTZEA, LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUAREN BITARTEZ

L5. GENERAR UN SISTEMA DE PROTECCIÓN DE INFRAESTRUCTURAS SENSIBLES PROPIAS DE EUSKADI, MEDIANTE LA COLABORACIÓN PÚBLICO-PRIVADA

L6 TRESNA BERRIAK EZARTZEA PERTSONEN BABESA EFIKAZIAZ ETA EFIZIENTZIAZ HANDITZEKO

L6. IMPLANTAR NUEVAS HERRAMIENTAS PARA INCREMENTAR CON EFICACIA Y EFICIENCIA LA PROTECCIÓN DE LAS PERSONAS

L7 GAUR EGUNGO IKERKETA SISTEMA DELITUEN ERREALITATE BERRIETARA EGOKITZEA, AHALIK ETA AZKARRENA DEN ETA BIKTIMEI AHALIK ETA KALTE GUTXIEN ERAGINGO DIEN JARDUKETA BAT LORTZEKO

L7. ADECUAR EL ACTUAL SISTEMA DE INVESTIGACIÓN A LAS NUEVAS REALIDADES DELICTIVAS, PARA LOGRAR UNA ACTUACIÓN LO MÁS INMEDIATA Y LO MENOS GRAVOSA POSIBLE PARA LAS VÍCTIMAS

L8 INTELIGENTZIAK GIDATUTAKO SEGURTASUN EREDU BAT GARATZEA

L8. DESARROLLAR UN MODELO DE SEGURIDAD GUIADO POR LA INTELIGENCIA

L9 HERRITARREKIN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANETAN EGOTEKO ETA TOPAKETAK EGITEKO DINAMIKA SISTEMATIKO ETA EGITURATU BAT ARTIKULATZEA, GARDENTASUNEZKO ETA KONTUAK EMATEKO DINAMIKA BAT.

L9. ARTICULAR UNA DINÁMICA SISTEMÁTICA Y ESTRUCTURADA DE RELACIÓN Y ENCUENTRO CON LA CIUDADANÍA Y LA SOCIEDAD CIVIL, ASÍ COMO DE TRANSPARENCIA Y RENDICIÓN DE CUENTAS

L10 MEKANISMOA ETA KANALAK EZARTZEA, HERRITARREKIKO ALDEBIKO KOMUNIKAZIO ZUZENA ETA EFIZIENTEA AHALBIDETZEKO

L10. ESTABLECER MECANISMOS Y CANALES QUE PERMITAN UNA COMUNICACIÓN BIDIRECCIONAL DIRECTA Y EFICIENTE CON LA CIUDADANÍA

L11 PERTSONA KONPROMETITUAK EDUKITZEA, PARTAIDETZA ZENTZUA DUTENAK ETA GOGOBETETA DAUDENAK.

L11. CONTAR CON PERSONAS COMPROMETIDAS, CON SENTIDO DE PERTENENCIA Y SATISFECHAS

L12 LANGILE-DOTAZIOA BERMATZEA, BEHARREZKOA DENA ETA EGONKORRA IZANGO DENA.

L12.ASEGURAR LA DOTACIÓN DE PLANTILLA NECESARIA Y ESTABLE

Horregatik, lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak, eztabaidatu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

Por ello, a propuesta del Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad, el Consejo de Gobierno, previa deliberación, adopta el siguiente,

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

**Lehenengoa.–** Euskadiko Segurtasun Publikoko 2020-2025 Plan Orokorra onartzea. Erabaki honen I. eranskinean dator plan hori.

**Primero.–** Aprobar el Plan General de Seguridad Pública de Euskadi 2020-2025, que se adjunta al presente acuerdo como Anexo I.

**Bigarrena.–** Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak Eusko Legebiltzarrari igorriko dio Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra.

**Segundo.–** La Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, remitirá al Parlamento Vasco el citado Plan General de Seguridad Pública de Euskadi.

**Hirugarrena.–** Segurtasun Sailari dagokio plana bultzatzeko, jarraipena egiteko eta gauzatzeko behar diren neurriak hartzea, 7.2 atalean ezarritakoarekin bat etorriz. Urtero, Planaren ebaluazioa egingo da, egindako ekintzak, haien aurrerapen-maila eta aurreikusitako helburuen lorpena aztertzeko. Txosten hori Eusko Legebiltzarrera bidaliko da.

**Tercero.–** Corresponderá al Departamento de Seguridad la adopción de las medidas necesarias para el impulso, seguimiento y ejecución del Plan, de conformidad con lo establecido en su apartado 7.2. Anualmente, se realizará una evaluación del Plan, con el fin de analizar las acciones realizadas, así como su grado de avance y el logro de los objetivos previstos. Dicho informe será remitido al Parlamento Vasco.

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut, Vitoria-Gasteizen, sinadura digitalaren egunean.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, en Vitoria-Gasteiz, en la fecha de su firma digital.